

Getxoko Bigarren eskuko liburu azokak 15.000 bat euro bildu ditu

Igandean amaitu zen Getxoko Bigarren eskuko Liburu Azokaren seigarren edizioan 15.529 euro bildu dira; hori da egun arte lortutako kopururik handiena, hain zuzen ere. Dirua proiektu solidario bat abian jartzeko erabiliko da. Azokak, Getxoko udal liburutegiek antolatuta, 18.000 bisitari bildu ditu eta 16.000 bat liburu saldu dira bertan, salneurri sinbolikoetan. Salgai izan diren liburuak partikularrek liburutegiei emandakoak dira soilik. Hauek guztiek euro bat inguruko prezioa izan dute, bildutako dirua proiektu solidario bati zuzenduko baita. Aurten dirua Perkualde GKeri emango zaio, Limako El Volante auzoan hezkuntza eta komunitate garapenerako proiektu bat bultzatzeko. Iaz 13.941 euro inguru jaso baziren, aurtengoan 15.529 euro bildu dira. Ekitaldi horren arrakastak erakusten du jarduera finkatu ez ezik hazi ere egin dela, bai bisitarien kopuruan, bai bildutako dirutzan. Publikoak eskainitako liburu kopuruaren %80a erosi du. Fondoak hainbat gai jorratzen zituen, bildumak eta entziklopediak barne zeudela.